



# BUDDY IZATEKO GIDA PRAKTIKOA

BUDDY programan izena eman  
dut, baina orain zer?  
Zeintzuk dira nire eginbeharrak?  
Zer lor dezaket BUDDY  
izateagatik?

**INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATU  
EDO ZALANTZAK ARGITU HEMEN:  
[info.welcomecentre@ehu.eus](mailto:info.welcomecentre@ehu.eus)**



# BUDDY programan Izena eman dut: orain zer?

## IKASLEEN ESLEIPENA

International Welcome Centreak (IWC) eskariak jaso eta esleipenak egiten ditu, irizpide hauen arabera:

- › Fakultate / Campus berekoak izatea
- › Praktikatuta nahi diren hizkuntzak

IWC-ak kontaktuan jarriko ditu BUDDY-a eta ikaslea.

## LEHEN KONTAKTUA

BUDDY-a eta ikaslea kontaktuan jarriko dira telefonoz zein emailaz. Horrela, BUDDY-ak ikaslea lagundu ahalko du bidaiatu aurreko zalantzetan eta zereginetan.

# Nola lagundu dezaket ikaslea?

**Ikaslea bertara heltzean, aurrez aurre geratzea da onena, elkar ezagutzeko eta zure laguntza hobeto eskaintzeko**

## UNIBERTSITATETIK KANPO

- › Etxebizitza aurkitzen lagundu
- › Hiriaren tour txikia eskaini, erreferentziazko tokiak ezagutu ditzan: dendak, garraioa, aisialdirako guneak, kirola egiteko aukerak, etab.
- › Garraio txartela eskuratzen lagundu
- › Ahal duzun heinean bestelako kontuekin lagundu: bankuko zereginetan, osasun zentroak identifikatzen, bisa tramiteak...

## UNIBERTSITATEAN

- › International Welcome Centre-ra lagundu, non gauden identifikatu dezan
- › Fakultateko Mugikortasun Koordinatzailearengana lagundu
- › Unibertsitateko zerbitzu eta plataformak ezagutzera eman: jangelak, kafetegiak, liburutegia, erreprografia, kirola eta kultura, e-gela eta GAURen erabilera...

# Zer eskuratu dezaket BUDDY izateagatik?

**ADI!**

International Welcome Centre-ak kudeatutako BUDDY programan 3 hautazko kreditu eskuratu ditzakezu gehienez

## NOLA ESKURATU KREDITUAK?

IWC-ak BUDDY gisa egin duzun lana baloratuko du. Horretarako, ebaluazio formularioa bidaliko dio esleitu zaizun ikasleari.

Ezinbestekoa izango da ikasleak formularioa betetzea, hori izango baita zure lanaren ebaluazio tresna bakarra.

Ikaslearen erantzunak baliatuz, IWC-ak zure lana baloratuko du, kalkulu taula baliatuz, dagokizkizun kredituen emaitzak lortuz.

## KREDITUEN AITORTZA

› Kalkulua egin eta gero, lortutako kredituak aitortzen dituen agiria jasoko duzu, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak sinatuta.

› Nahi izatekotan, zure lana aitortzen duen diploma ere eskatu ahalko duzu.

# Kredituen kalkulua:

1 kreditu = 30 ordu

## ZEREGINA:

Ikaslea heldu baino lehen kontaktuan jartzea

Ikaslea heldu eta gero aurrez aurre ezagutzeko  
geratzea

International Welcome Centre-ra laguntzea

Fakultateko Mugikortasun Koordinatzailearengana  
laguntzea

E-gela eta GAUR erabiltzen laguntzea

Hiriaren tour txikia eskaintzea

Campusaren tour txikia eskaintzea

\*Bestelako beharrekin laguntzea: aseguruak, bankuak,  
etxebizitza, bisa, etab.

## ORDU KOPURUA:

15

15

15

15

10

10

10

30

\*Hauek ez dira BUDDY-en ezinbesteko betebeharrak. Hala ere, ikasleak beharko balu, positiboki baloratuko da lagundu izana.